

Gaia: «Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa» dokumentuaren zirriborroa hobetzeko proposamenak

Getariak tresna eraginkorrak behar ditu erasoak prebenitzeko, erasoak jasan duten pertsonen arreta egokia eskaintzeko eta jaiak nahiz aisialdi-guneak pertsona guztientzat seguruak, askeak eta errespetuzkoak direla bermatzeko. Era berean, ezinbestekotzat jotzen dugu jarduteko, koordinatzeko eta kasuak baliabide espezializatuetara bideratzeko irizpide argiak ezartzea, Udalak, antolatzaileak, ostalaritzak, elkarteak eta gainerako eragileak egoera bakoitzaren aurrean nola jokatu behar duten jakin dezaten.

Helburu horiek partekatzen baditugu ere, gure ustez, aurkeztutako protokoloak berrikuspen sakona behar du behin betiko onartu aurretik. Izan ere, dokumentuan hainbat hutsune eta inkoherentzia antzeman ditugu: izenburua ez dator guztiz bat benetako aplikazio-eremuarekin, indarkeria mota desberdinak ez dira behar bezala bereizten, arreta- eta bideratze-ibilbideak ez daude behar bezain zehaztuta.

Izenburuak dokumentua indarkeria matxistaren aurkako protokolo orokor gisa aurkezten badu ere, edukiak erakusten du haren aplikazioa nagusiki jaietan, kontzertuetan, txosnetan, ostalaritza-establezimenduetan, gaueko aisialdian eta bestelako ekitaldi komunitario edo festiboetan kokatzen dela. Horregatik, beharrezkoa da protokoloaren izenburua, helburua eta aplikazio-eremua elkarren artean koherenteak izatea.

Bestalde, protokoloak behin eta berriz erabiltzen ditu «subjektu transmaribibolloak», «sexu- eta genero-disidentziak» eta «transmaribibollofobia» bezalako terminoak LGBTQ+ pertsonak modu orokorrean izendatzeko. Aktibismoaren esparru jakin batzuetan termino horien erabilera zilegia izan daitekeen arren, gure ustez, erakunde publiko batek hizkera errespetuzkoa, ulergarria, inklusiboa eta herritar guztientzat ezagugarria erabili behar du. Udalak ezin du kolektibo oso bati modu orokorrean ezarri pertsona lesbiana, gay, bisexual edo trans guztiek beren burua izendatzeko erabiltzen ez duten terminologia.

Hau dela eta, Getariako EAJ-PNVek hurrengo hobekuntzak egitea proposatzen du:

LEHENA. Izenburua benetako aplikazio-eremura egokitzea.

Proposatzen den izenburua: «Getariako jai eta aisialdi-guneetan indarkeria matxistak eta LGBTQifobikoak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloa».

Protokoloaren hasieran aipatzen den bezela, plana “aisialdi- eta jaiguneetan indarkeria matxistak prebenitzeko eta horien aurrean modu koordinatuan jarduteko” da. Izenburua ez da egokia, dokumentuaren benetako edukia eta aplikazio-eremua ez dituelako behar bezala islatzen. Izenburuak protokolo orokor eta integrala dela iradokitzen du, baina dokumentua nagusiki jaietara, aisialdi-guneetara, kontzertuetara,

txosnetara eta gaueko aisialdira bideratuta dago.

Gainera, protokoloak emakumeen aurkako indarkeriaz gain, LGTBIfobiarekin lotutako erasoak ere jasotzen ditu, nahiz eta bi indarkeria motek ez duten beti jatorri, definizio juridiko edo arreta-ibilbide bera. Horregatik, izenburuak bai aplikazio-eremua bai landutako indarkeria motak zehaztasun handiagoz jaso beharko lituzke.

BIGARRENA. Erakunde-hizkerako terminologia erabiltzea.

Dokumentu osoan honako aldaketa hauek egitea proposatzen dugu:

- **“Subjektu transmaribibolloak”** eta **“Sexu- eta genero-disidentziak”** terminoaren ordez, **«LGTBIQ+ pertsonak»** erabiltzea, edo, dagokion atalean, aipatzen den kolektibo zehatza izendatzea.
- **«Transmaribibollofobia»** terminoaren ordez, **«LGTBIfobia»** erabiltzea; edo, egoerak zehaztea eskatzen duenean, **«homofobia, lesbofobia, bifobia edo transfobia»** terminoak erabiltzea.

Protokoloak pertsona bakoitzak bere burua izendatzeko duen eskubidea errespetatuko du. Udalaren dokumentazio eta komunikazio ofizialetan hizkera neutroa, ulergarria, errespetuzkoa eta juridikoki aitortua erabiliko da

Proposamen honen helburua ez da elkarte edo kolektiboek beren burua nahi duten moduan izendatzeko aukera mugatzea, baizik eta Udalak termino jakin bat kolektibo osoari modu orokorrean ez ezartzea.

HIRUGARRENA. Indarkeria moten arteko bereizketa kontzeptuala egitea

1. Emakumeen aurkako indarkeria matxista

Emakumeen aurkako indarkeria matxista honela definitu beharko litzateke: sexuagatiko diskriminazioarekin, egiturazko desberdintasunarekin eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman historikoki desorekatuarekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria.

2. Indarkeria LGTBIfobikoak

Bereizita jaso beharko lirateke pertsona baten sexu-orientazioak, genero-identitateak, genero-adierazpenak edo sexu-ezaugarriek eragindako erasoak, mehatxuak, jazarpenak, irainak, umiliazioak edo diskriminazioak.

3. Egoera interseksionalak

Aitortu beharko litzateke pertsona batek diskriminazio edo indarkeria mota desberdinak aldi berean jasan ditzakeela; adibidez, emakumea izateagatik eta, aldi berean, lesbiana, bisexuala edo trans izateagatik.

4. Esku-hartzerako printzipio komunak

Indarkeria mota desberdinen aurrean honako printzipio komunak aplikatu ahal izango lirateke:

- Eraso jasan duen pertsonaren babesa eta segurtasuna.
- Entzute aktiboa eta lehen harrera.
- Konfidentzialtasuna.
- Birbiktimizazioa saihestea.
- Pertsonaren erabakiak eta erritmoak errespetatzea.
- Erakundeen arteko koordinazioa.
- Dagokion baliabide espezializatura bideratzea.

Bereizketa horren helburua ez da biktimen arteko hierarkiarik ezartzea, baizik eta egoera bakoitzari erantzun egokia eskaintzea.

LAUGARRENA. Jarduteko ibilbide bereiziak ezartzea.

Protokoloa aktibatzeke atalean eskema argiak eta bereiziak gehitzea proposatzen dugu.

A ibilbidea: emakume baten aurkako indarkeria matxista edo sexu-indarkeria

Honako alderdi hauek zehaztu beharko lirateke:

- Lehen harrera eta babesa.
- Beharrezkoa denean, osasun-arreta.
- Larrialdi-zerbitzuak edo polizia aktibatzea.
- Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea.
- Indarkeria matxista edo sexu-indarkeria artatzeko baliabide espezializatueta bideratzea.

B ibilbidea: eraso edo diskriminazio LGTBIfobikoa

Honako alderdi hauek zehaztu beharko lirateke:

- Lehen harrera eta babesa.
- Gertakariaren diskriminaziozko izaera edo gorroto-osagaia baloratzea.
- Behar denean, larrialdi-zerbitzuak edo polizia aktibatzea.
- LGTB IQ+ pertsonak eta diskriminazioaren biktimak artatzeko baliabide espezializatueta bideratzea.

Horretarako, protokoloan espresuki jaso beharko lirateke, besteak beste:

- Berdindu, LGTBI pertsonen eta haien ingurukoei informazioa eta arreta eskaintzeko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua.
- Eraberean, diskriminazioari aurre egiteko sare publikoa.
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua.
- Ertzaintzaren edo udaltzaingoaren baliabideak, egoeraren arabera.

C ibilbidea: adingabeak eta babes berezia behar duten pertsonak

Honako alderdi hauek jaso beharko lirateke:

- Adingabearen interes gorena.
- Zerbitzu espezializatuen esku-hartzea.
- Legezko arduradunekiko komunikazioa, dagokionean.
- Legez ezarritako komunikazio-betebeharrak.
- Intimitatea eta konfidentzialtasuna modu indartuan babestea.

BOSGARRENA. Koordinazio taldea.

Udal-talde bakoitzeko ordezkari batek parte hartzea proposatzen da, berdintasunarekin lotutako gaietan eta, bereziki, eraso baten aurrean, udal-ordezkaritza osoak jarrera bateratua erakutsi behar duelako. Horrelako egoerek alderdi politikoen arteko desberdintasunak gainditzen dituzte, eta udalerriaren izenean ematen den erantzunak adostua, sendoa eta instituzionalki partekatua izan behar du. Udal-talde guztien parte-hartzeak mezu argia helarazten die herritarrei: indarkeriaren aurrean Getariako ordezkari politiko guztiak norabide berean daudela, biktimaren babesa, berdintasuna eta erasorik gabeko herri baten alde

GAIA: BOTO PARTIKULARRA.«INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN PREBENITZEKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA» DOKUMENTUARI BURUZKO BATZORDE INFORMATIBOAREN DIKTAMENARI

Getariako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko zinegotziek honako **BOTO PARTIKULARRA** aurkezten dute, batzorde informatiboaren espedienteari erantsi eta Udalbatzaren aurrean defendatua izan dadin.

AURREKARIAK

2026ko uztailaren 14an egindako batzorde informatiboaren bileran, «Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa» dokumentuari buruzko gaia aztertu eta bozkatu zen.

Batzordea egin aurretik, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkariak ez zitzaion helarazi batzordeak aztertu eta bozkatu behar zuen erabaki-proposamenaren testu zehatzik. Era berean, batzordearen bileran bertan ere ez zen irakurri, aurkeztu edo behar bezala identifikatu bozketaren ondorioz onartutzat joko zen diktamenaren testua, ezta Udalbatzari aurkeztu nahi zitzaion erabaki-proposamenaren eduki zehatza ere.

Hala ere, alkateak gai zerrendan sartzeko bozketa eta testu proposamena bozketara eraman zuen, bozketaren xedea eta bozkatzen zen erabakiaren irismena aurretik argi eta zehatz azaldu gabe.

Egoera horren aurrean, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkariak ez zuten aldeko edo aurkako botorik eman eta, ondorioz, haien jarrera abstentzio gisa jaso behar da batzordearen aktan.

Batzordearen bileran bertan, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkariak berariaz adierazi zuten, aurkeztutako protokoloak aldaketa eta hobekuntza garrantzitsuak behar zituela eta batzordeak onartutzat joko zuen diktamenari boto partikularra aurkeztuko ziotela. Adierazpen horiek guztiak batzorde informatiboaren aktan jasotzea eskatzen da.

EAJ-PNV udal-taldeak bat egiten du indarkeria matxistak eta LGBTIfobikoak prebenitzeko, erasoak jasan duten pertsonak babesteko eta udal-eragileen arteko koordinazioa hobetzeko helburuarekin. Hala ere, udal-talde honen iritziz, aurkeztutako protokoloaren zirriborroak hainbat aldaketa behar ditu behin betiko onartu aurretik.

Horretarako, EAJ-PNV udal-taldeak «Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa» dokumentuaren zirriborroa hobetzeko proposamenak» izeneko dokumentua prestatu du. Dokumentu hori boto partikular honi eranskin gisa gehitzen zaio eta haren parte banaezina da.

OINARRI JURIDIKOAK

Boto partikular hau honako arau hauetan oinarritzen da:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko **7/1985 Legearen 77. artikulua**.

- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 15.b, 84, 97.4, 98.2, 100.1, 136.3, 137.2 eta 138. artikulua.

BOTO PARTIKULARRA

EAJ-PNV udal-taldeak batzorde informatiboak onartutzat jo duen diktamenarekiko desadostasuna adierazten du eta honako boto partikular hau formulatzen du.

Boto partikular honen helburua ez da protokoloaren beharra edo haren helburu nagusiak zalantzan jartzea, baizik eta aurkeztutako dokumentua hobetzea eta haren behin betiko idazketan EAJ-PNV udal-taldeak egindako ekarpenak kontuan hartzea.

Horregatik, EAJ-PNV udal-taldeak eskatzen du boto partikular honi erantsitako «Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa» dokumentuaren zirriborria hobetzeko proposamenak» dokumentuan jasotako proposamenak **osorik edo partzialki protokoloaren behin betiko testuan txertatzea**.

Horretarako, proposamen bakoitza aztertu eta baloratu beharko da, eta egokitzen jotzen diren aldaketak protokoloaren azken idazketan jaso. Dokumentuko proposamen guztiak onartzen ez badira, onartutako, partzialki onartutako eta baztertutako proposamenak identifikatu beharko dira, eta hartutako erabakia arrazoitu.

ERABAKI-PROPOSAMEN ALTERNATIBOA

LEHENA. «Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa» dokumentua aurkeztutako idazkeran behin betiko ez onartzea.

BIGARRENA. Protokoloaren zirriborria berrikustea eta boto partikular honi erantsitako «Indarkeria matxistaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa» dokumentuaren zirriborria hobetzeko proposamenak» dokumentuan jasotako proposamenak aztertzea.

HIRUGARRENA. Erantsitako dokumentuan jasotako proposamenak, osorik edo partzialki, protokoloaren behin betiko testuan txertatzea.

Bereziki, honako alderdi hauei buruzko proposamenak aztertu eta txertatzea:

1. Protokoloaren izenburua haren benetako helburu eta aplikazio-eremura egokitzea.
2. Udalaren dokumentazio ofizialerako hizkera instituzionala, ulergarria, errespetuzkoa eta inklusiboa erabiltzea.
3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren, indarkeria LGBTIfobikoen eta egoera interseksionalen arteko bereizketa kontzeptuala egitea.
4. Indarkeria edo eraso mota bakoitzerako jarduketa-, arreta- eta bideratze-ibilbide argiak ezartzea.
5. Koordinazio-taldean udal-talde politiko guztietako ordezkari bana sartzea.

LAUGARRENA. EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako proposamenak banan-banan baloratzea eta protokoloaren behin betiko testuarekin batera honako informazioa aurkeztea:

- Osorik onartutako proposamenak.

- Partzialki onartutako proposamenak.
- Onartu ez diren proposamenak.
- Proposamen bakoitzaren inguruan hartutako erabakiaren arrazoibidea.

BOSGARRENA. Boto partikular hau eta haren eranskina batzorde informatiboaren espedienteari eta aktari eranstea, batzordeak onartutako diktamenarekin batera.

SEIGARRENA. Boto partikular hau eta erantsitako dokumentua Udalbatzako kide guztien eskura jartzea, gaiaren eztabaida eta bozketa egin aurretik.

ZAZPIGARRENA. EAJ-PNV udal-taldeari boto partikular hau Udalbatzaren bileran aurkeztu eta defendatzeko aukera ematea.

ZORTZIGARRENA. Udal Idazkaritzak espedientean identifikatzea eta jasotzea batzorde informatiboan onartutzat jo den diktamenaren testu zehatza eta Udalbatzari aurkeztuko zaion erabaki-proposamena.

Era berean, batzordearen aktan honako inguruabar hauek jasotzea:

- EAJ-PNV udal-taldeko ordezkariak ez zitzaizela bozkatzen zen erabaki-proposamenaren testu zehatza aurkeztu.
- Batzordearen bileran boto partikularra aurkeztuko zutela iragarri zutela.

Getarian, 2026ko uztailaren 14an.

IOSU MUGICA GARMENDIA
Data / Fecha: 2026-07-16